

Herritarrek agurtzerik ez

GURRUTXAGAREN GORPUA ERRENERIAN. Ertzaintzak behartuta, Egoitz Gurrutxagaren senideek zuzenean eraman behar izan zuten zerraldoa jaioterriko hilerrira.

Axun Erzibengoa | ERRENERIA

Egoitz Gurrutxagaren senideek atzo goizean jaso zuten semearen gorpua Bilbon, Institutu Anatomiko Forentsean. Gorpua jaso orduko eskaini zioten lehenengo Aurrekua eta Eusko Gudariak kantua, Bilbon bertan. Arreba dantzari eta aita txistua jotzen, egunean zehar hainbat aldiz errepikatu zen irudi hori bera. Ondoren herrira abiatu ziren. Erraustu aurretik herriko sarreatik hilerrira zerraldoa herritarrek laguntzea zuten nahia, bidean, gaztearen gogoko ziren hainbat tokitan geldialdia egin. Ez zuten egiterik izan.

Eguerdian Erreneriako kaleetan jende ugari zebilen. Herriko sarreatik kanposanturako bideak ikurrinez atonduta zeuden, eta jendea biltzen hasi zen Xenpelar plazaren inguruan gorpua noiz iritsiko zain. Garai bertsuan agertu ziren ertzainak. Bost furgoneta ziren, eta haietako hiru aipatutako plazatik hurbil geratu ziren. Hori ikusirik, jendea herriko sarrerara abiatu zen, Alaberga auzo aldera, ixilean. 500 bat metro aurrerago ageri ziren ertzainen furgoneta gehiago. Zerraldoa hartzeko zain zeudeneko ustea baieztatu egin zen 13:45ak aldera beste toki batean, Beraungo bidesarian.

Ertzainekin zuzenean hilerrira

Bilbotik Donostiarako bidea arazorik gabe egin zuten Egoitz Gurrutxagaren senideek. Donostiako irteeran geldialdia egin zuten eta han ere Aurrekua dantzatu eta Eusko Gudariak abestu zioten. Handik Erreneriara abiatu ziren eta Beraungo bidesarian irteeran aurrez aurre aurkitu zituzten ertzainen furgonetak. Herrian sartzen ez zieten utziko, etxe ataritik pasatzen ere ez, eta zuzenean hilerrira eramango zituztela esan zieten. Ertzainen furgoneta bat aurretik jarri zen, atzean zerraldoa eta senideen bost auto jartzeko baimena eman zuten, eta ondoren ertzainen beste furgoneta bat. Atzetik joan ziren ordu arte segizioan joan ziren gainontzeko autoak.

Hilerrira helduta han beste ertzain pila bat aurkitu zuten senideek. Batzuk errepidean jarrita zeuden hesia eginez, eta beste batzuk hilerraren barruan. Abokatuak ertzainburuarekin hitz egin ondoren lortu zuten hilerrian barruan zeuden ertzainak ateratzea. Kantu bat abes-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Egoitz Gurrutxagaren arreba ukabila goian zuela dantzatu zuen Aurrekua, eta aitak txistua jo zuen hilerrira heltzean. Zerraldoaren aurrean jarri zituen anaia gazteak Egoitzen danbolina eta txistua.

tu, Aurrekua dantzatu eta Eusko Gudariak abestu zioten beilatokira sartu aurretik.

Oso jende gutxi parte hartu ahal izan zuen agur horretan, ertzainek ez baitzuten inor pasatzen uzten senitarreko zuzena zela frogatzen ez bazuen.

Gorpua ertzainekin zuzenean hilerrira eramango zutelako jakitean jende gehiena Gurrutxagatarren etxe atarira joan zen, 13:15ak aldera. Han lore eskaintza egin zuten, eta ondoren dantzari batzuek dantza egin zuten, eta bi bertso bota zituzten. Sozialista Abertzaleak taldeko EAeko legebiltzarkide batzuk, eta Hodei Galarragaren senitarrekoak ere han ziren.

Gorpua 17:00etan erraustu zuten. Orduan ere hilerraren atarian ertzain asko zeuden, baita Guardia Zibilen kontrola inguruetan ere. Hala ere, bertaratu ziren herritar apurrei ez zieten sartzeko eragozpenik jarri. Erraustokira sartu aurretik azken Aurrekua eta kantua egin zioten, eta une hunkigarriak izan ziren. Bi ordu geroago jaso zituzten erraustak, Ertzaintzak hurbiletik jarraituta. Handik etxerako bidea hartu zuen sendiak, eta etxearen inguruan ere ertzainak zeuden.

Kalean jendea bildu zen erraustak etxera heltzen zirenean hara joateko asmoz. Ertzaintzaren presentziagatik ia ezinezkoa izan zen hori. Azkenean, 21:30ak aldera 50 bat lagun bildu ziren senideekin etxe atarian, eta Aurrekua dantzatu eta Eusko Gudariak abestuta etxeratu ziren.



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Ertzaintzak zerraldoa hartu zuen unea, autopista irteeran.

SENITARTEKOAK

«Ziur gaude orain arte bezain babestuak sentituko garela bihar»

«Ziur gaude bihar ere [gaurgatik] orain arte bezain babestuak sentituko garela», esan zuen Eneritz Gurrutxagak, Egoitz Gurrutxagaren arreba, atzo arratsaldean, gaur 20:00etan anaia azken agurra egitea erabaki dutela jakinarazi zuenean. Hodei Galarragaren eta Olaia Kastresanaren senideekin batera egin zuten agerraldia Gurrutxagaren senideek. Ertzaintzaren jarrera gogor salatu zuten, «zerraldoa bahitu» zutelako esanez. «Ertzaintzak legalitate espainiarraren aginduetara murgilduta bai sendi honi, zein Oorereta eta beste hainbat lekuetatik hurbildutako lagunei azken agurra egitea ukatu digu».

«Ez dugu hitzik gure haserrea eta nahigabea zein tamainakoa den adierazteko», esan zuten. Arduradun politikoei eskaera zuzena egin zieten: «Utz diezagutela Egoitz azken agur duina ematen. Berez zaila, gogorra, den une hau ez dezatela oraindik ere areagotu». Hala gertatuak gertatu, gaur azken agur hori egingo dutela iragarri zuten.

ESTRADIZIOA

Holandak Rodriguezen kontrako estradizioa onartu du

Agentziak | HAGA

Amsterdameko Auzitegiak argi berdea eman zion atzo Juan Ramon Rodriguez Fernandez, Marc, abeslari kataluniarren kontrako estradizio eskaerari. Atzoko bistan, epaileak esan zuenez, Holandako Justiziak «Espainiako agintariei bermeak» eskatu dizkie, estradizioaren ondoren Rodriguez atxilotuta egon bitartean «inkomunikatuta» egon ez dadin.

Epaitegi berak atzera bota zuen irailaren 17an estradizio eskaera, ez zuelako datu nahikorik egozten zizkieten delituez. Orain, baina, Espainiak zer leporatzen dion «argi» duela dio auzitegiak. Espainiak ETArekin zerikusia duelakoan eskatu zuen estradizioa.

Atzoko saioa bertan behera utzi zuten hamar minutuz, Rodriguezen 30 bat lagunek protesta egin zutelako. Bere abokatuak helegitea aurkeztuko du. Rodriguez aske dago ekainaren 27az geroztik.

Askatasunak Holandaren erabakia salatu du, «irregularitasunak daudela onartu duen arren» estradizioa onartu duelako.

MANIFESTAZIOA

Gasteizko manifestazio debekuari helegitea jarri diote

Erredakzioa | GASTEIZ

Gasteizko Udaleko Sozialista Abertzaleak taldeak helegitea jarri du EAeko Justizia Auzitegi Nagusian, Herrizaingo Sailak ostiral honetarako deitutako manifestazioa debekatu zuela eta. Jose Enrique Bert zinegotziak adierazi du Garzonen autoa oraindik ez dela Udalera heldu, eta beraz ez dagoela debekurako arrazoirik. Zinegotzi abertzaleak jakinarazi du, manifestazioa debekatzen bada Sozialista Abertzaleak taldeak «egoeraren arabera jokatuko» duela.